

## 25. GARAI BATEKO EZKONTZAK

Nire ahizpa zaharrena ezkondu zen hemen.

Hemen.

Hemen.

### **A! Hemen, e?**

Eta gero, etxean, etxe... zahar horretan, pues... izan zen boda. Eta herri guztia gonbidatu zen.

### **Bai, e? Eta zuek egon zineten sukaldatzen edo... edo... ez dakit, norbait enplegatu zen sukaldeko... horretan aritzeko?**

A, klaro, ekartzen ziren sukaldari batzuk. Aurrepeko bat eta hemengo harategikoa baita ere, zen ani... zera, baita ere, bi sukaldari. Eta gero, pues... laguntzaileak, laguntzaileak.

### **Eta sukaldaria zer aritzen zen?**

A! Pues, gero baita ere pues barridekoek zerbitzatzen zuten mahaia eta... hala. Eta ontziak garbitu baita ere barridekoek! Bai, bai.

### **Bai, ez?**

Bai, bai, bai.

### **Eta, klaro, zeren orduan kristoren plater pila bat eta...**

Pues horregatik, horregatik. Horregatik, horregatik, bai, bai, bai, bai.

### **Eta zer izan zen bazkaria? Oroitzen zara zer bazkari izan zen orduan?**

Ja! Pues bazkaria... ni ez naiz oroitzen. Ni oroitzen naiz bezperan, urte biharam... urteberri biharamunean ezkondu ziren eta ni urteberri egunean joan nintzen bordara, behietara. Baina, eta zen... pues erran dut zer data. Baina behiak "senarazi" puska bat eta atera nituen eta etorri nintzen etxera. Eta etortzen naiz eta zi... bortz harakai dilindan zeuden.

### **Jesus!**

Hiru axuri eta bi ardi.

### **Hara!**

Bai, bai, bai, bai. Hiru axeri... hiru axuri eta bi ardi dilindan zeuden. Ni horretaz oroitzen naiz. Eta, hara, gero pues bi... sukaldari baita ere, ja ari ziren ona... zera, labean zerbait egiten. Ez dakit zer egiten zuten ja labean. Biharamunerako aitzintzen zerbait.

### **Ja. Postrea eta...?**

Pues e... ez naiz oroitzen zer, baina egiten ari ziren, bai, bai. Eta gero, pues bertze anitz emazteki laguntzen. Ni... ni gaztea nintzen eta ni ez nintzen hartan sartu, más que... oroitzen naiz ni horretaz.

**Dilindan...**

Bai, dilindan. Gainera egin zidan grazia ertaina.

**Eta zer joan ziren, gero... eztei edo... eztei bidaian joan al ziren? Ez?**

Naski ez.